

Donostia, 2021eko martxoaren 18a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

DONOSTIA OINEZ PROGRAMARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. Artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAK hil honetan izandako bileran Donostia Oinez programari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Batzarrak Hiriko Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioa onartu zuenetik urtebete igaro da, eta beharrezkoa da Deklarazioan jaso ziren proposamenei buruz emandako pausoak eta horien garapen-kronograma jakitea; izan ere, Deklarazioan adierazi bezala: “Larrialdi klimatikoa izatea adierazteak konpromiso politiko benetako eta lotesle batzuk betetzea eskatzen du, oraingoak baino askoz ere asmo handiagokoak, eta baita krisi honi aurre egiteko izan behar diren baliabideak jartzea ere”.

Deklarazioak honako hau ere esaten zuen: “Larrialdi-egoerak, izan ere, beste era batera bideratzea eskatzen du gure Udalak eta gure hiriak dituen baliabideak, klima-krisiari eta hark dakartzan arazoei aurre egingo badiegu.”

Egungo aurrekontu proiektua aurkeztuta, ikusi dugu ez dagoela berriazko kontu sailik adierazpenari lotutako jarduera proposamen jakinetarako. Esaterako, ez dago kontu sailik Donostia Oinez programa abian jartzeari buruzko proposamenerako.

Hil honetako batzordean, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak, Donostia Oinez programa ezartzeko kronogramari buruz galdetu ziotenean, jakinarazi zuen beste Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plan bat behar zela, Larrialdietarako Deklarazioan jasotako mugikortasun-proposamenak biltzeko. Dokumentua prestatzen ari dira, eta urte bukaera arte ez omen da eskuragarri egongo. Orduan hasiko dira hainbat eragilerekin batera lantzen.

Kontuan hartuta 2023an Donostiak emisio gutxiko eremu bat eduki beharko duela, lehentasunekotzat jotzen dugu ahalik eta azkarren abian jartzea Donostia Oinez Programa, ohitura eta erabileren aldaketa bizkortzeko eta emisioak murrizteko, bizi dugun egoera kritikoari lehenbailehen erantzun ahal izatearren.

Hori dela eta, epeak luzatzen ari direnez eta Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioa egin zenetik azken urtean aurrerapenik egon ez denez, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurtengo lehen seihilekoan abian jar dezala Donostia Oinez programa.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurten garatzeko Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioan mugikortasun jasangarriaren inguruan adostutako proposamenak, hartutako konpromisoak bete ahal izateko.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioan onartu bezala, eskura dauden udal baliabideak beste helburu batzuetara bidera ditzala, krisi klimatikoari aurre egiteko.
4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma bat aurkez dezala 2023an hirian emisio gutxiko eremu bat ezartzeko behar diren neurriak garatzeko .

5. Donostiako Udaltzako hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari GI-20 errepidea Marrutxipin lotzeko proiektua geldiaraz dezala, mugikortasun jasangarriaren arloko Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioaren proposamenaren aurkakoa delako.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia